



Osasuna eta hizkuntza IX: Euskara, adimen artifiziala eta osasuna



Gure osasunaren etorkizun digitala, eskubideak eta kalitatea eztabaidatzen.

Ira. 11 2026

Kod. 018-26

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 11 2026

Kokalekua

Aramaio

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Euskara bere garapen teknologikoaren une erabakigarrian dago. Adimen artifizialak osasun-arreta erroten eraldatzen duen bitartean, funtsezko galdera bat sortzen da: gure hizkuntza iraultza honetan presente egongo da ala bazterrean geratu da?

Uda Ikastaro honetan, euskara Euskal Herriko osasun-sistemari aplikatutako teknologia berrietan integratzeak dakartzen erronkak eta aukerak aztertuko dira. Euskarazko hizkuntza-ereduen garapenetik hasi eta historia kliniko digitaletan, osasun-laguntzaile birtualetan, transkripzio medikoko sistemetan, ITZULBIDE moduko itzultzaile neuronal espezifikoetan eta lagundutako diagnostikorako tresnetan praktikan ezartzeraino aztertuko dugu.

Funtsezko gai hauek aztertuko ditugu:

- Osasungintzako (etorkizuneko) teknologia berriak.
- Adimen artifizialerako euskararen hizkuntza-baliabideen egungo egoera.
- Hizkuntza nagusien eta euskararen arteko arrakala teknologikoa.
- Osasun-digitalizazioko esperientziak euskaraz.
- Adin digitalean kalitatezko osasun-zerbitzuak euskaraz bermatzeko estrategiak.
- Osasun-arloko alderdi etikoak eta hizkuntza-eskubideei buruzkoak.

Ikastaro hau egokia da osasun-profesionalentzat, hizkuntza-teknologietako ikertzaileentzat, Osakidetza kudeatzaileentzat, ikasleentzat eta osasun-arloan euskararen etorkizun digitalean interesa duen edonorentzat.

Helburuak

Hizkuntzen kudeaketarako osasungintzako (etorkizuneko) teknologia berriak (adimen artifizialean oinarrituak) ezagutzea.

Adimen artifizialerako euskararen hizkuntza-baliabideen egungo egoera ezagutzea.

Hizkuntza nagusien eta euskararen arteko arrakala teknologikoa ezagutzea.

Osasun-digitalizazioko euskarazko esperientziak ezagutzea.

Aro digitalean kalitatezko osasun-zerbitzuak euskaraz bermatzeko estrategiak eztabaidatzea.

Osasun-arloko alderdi etikoak eta hizkuntza-eskubideei buruzkoak ezagutzea eta eztabaidatzea.

Lankidetzak



Programa

2026-09-11

09:30 - 09:45	Erregistroa
09:45 - 11:25	Adimen artifiziala euskaraz
09:45 - 09:55	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Hizkuntza: euskara Jon Zarate Sesma EHU - Zuzendaria Lander Solozabal Corcho Osatek - Zuzendarikidea
09:55 - 11:25	“Adimen artifiziala, osasuna eta euskara” Hizkuntza: euskara Xabier Irastorza Urbietia EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea Maite Oronoz Anchordoqui EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea
10:25 - 10:55	“Adimen artifiziala euskaraz” (Hizkuntza-eredu handiak euskaraz konpontzen dira eta ezagutza handia dute. Zer da hobea eredu handi bat edukia itzuliko duena? Edo euskaraz ongi dabilen bat ezagutza mugatua duena? Arazoak eta erronkak) Hizkuntza: euskara Ander Barrena Madinabeitia EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea Maite Oronoz Anchordoqui EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea
10:55 - 11:25	“ Latxa: aurkezpena eta proba” Hizkuntza: euskara Naiara Perez Miguel EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea
11:25 - 12:15	Kafe atsedena
12:15 - 13:00	“Paziente birtuala eta osasun mental” Hizkuntza: euskara Mikel Idoyaga Bazan EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea Paziente birtuala simulatzeko txatbot medikoa Maitane Urruela EHUKo HiTZ zentroa - Ikertzailea
13:00 - 14:30	Bazkaria Osasun-arloko aktibismoa, arretaren kalitatea eta hizkuntza-eskubideei buruzkoak garai digitalean
14:30 - 14:50	“Hizkuntza mugak osasun arretan. Intellectus intelligi” Hizkuntza: euskara Aitor Montes Lasarte Osakidetza - Familia medikua Aramaion, Debagoieneko ESI

14:50 - 15:10	“Kalitatezko osasungintza publikoaren eta euskaldunaren aldeko aldarria Ipar Euskal Herritik” Hizkuntza: euskara Gorka Torre Ipar Euskal Herriko taldeko kidea
15:10 - 15:30	“Hizkuntza eta Osasuna txirikordan proiektua” Hizkuntza: euskara Intza Gurrutxaga EHEko kidea
15:30 - 15:50	“Historia klinikoa euskaraz idazteko ekimen” Hizkuntza: euskara Adrian Zelaia Ulibarri Aintzateko kide
15:50 - 16:50	Mahai ingurua: “Mahai ingurua: adimen artifizialean oinarritutako teknologia berriak kalitatezko arreta elebidunaren normalizazioan” Hizkuntza: euskara Lander Solozabal Corcho Osatek - Zuzendarikidea (Moderatzailea) Garbiñe Elizegi Narbarte Erizaintzan doktorea Unai Larrinaga Torrontegui Aintzateko - kidea Aitor Montes Lasarte Osakidetza - Medikua
16:50 - 17:00	“Itxiera” Hizkuntza: euskara Jon Zarate Sesma Euskal Herrian Euskaraz - Koordinatzailea

Zuzendaritza



Jon Zarate Sesma

UPV/EHU

Jon Zarate Sesma (Lekeitio, 1979) UPV/EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko kide da. Farmazia Fakultateko irakaslea da eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea (2014-2021). Farmazian doktorea da (UPV/EHU, 2007) eta 2016ko osasun-arloko Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren zuzendaria izan da. Azken urteetan gene terapiarako garraiatzaile ez-biralen garapenean ikertzen aritu da. Goi mailako nazioarteko ikerketa aldizkarietan 20 artikulutik gora dauzka argitaratuta eta euskarazko produkzioa zientifikoa ere nazioartekoaren parekoa dauka Ekaia edo Elhuyar bezalako aldizkarietan.



Lander Solozabal Corcho

OSATEK, S. A.

Portugalete, 1976. Euskal Filologian lizentziatua, EHUn. Graduondokoak eta masterrak egin ditu soziolinguistikan, hizkuntza-plangintzetan eta osasun-zerbitzuen hizkuntza-kudeaketan. 1994tik euskara-irakasle, trebatzaile, itzultzaile eta zuzentzaile ibilitakoa, baina batez ere hizkuntza-teknikari lanetan, hainbat entitate publiko eta pribatutan. Duela 7 urtetik hona Osatek sozietate publikoko hizkuntza-normalizazioko teknikaria da.

Irakasleak



Ander Barrena Madinabeitia

UPV/EHU

Ander Barrena (ORCID 0000-0003-2024-0362) es profesor asociado en la Universidad del País Vasco. Obtuvo su doctorado en 2017 y actualmente es investigador en HiTZ Zentroa. Sus principales contribuciones al campo del Procesamiento del Lenguaje Natural incluyen publicaciones en revistas indexadas en JCR y en conferencias internacionales de primer nivel (CORE A y A*). En los últimos años, ha adoptado una perspectiva multidisciplinar, centrándose en el PLN aplicado al ámbito médico y la neurociencia. Ander ha participado como investigador en numerosos proyectos nacionales e internacionales (por ejemplo, MICINN-TED21/23, MCIU-O21/P02, INT-NOCORE19/08). Es el investigador principal (IP) del proyecto Neural2Speech IIKUR-HPC&IA 2023-2024, cuyo objetivo es decodificar el habla y el lenguaje directamente del cerebro humano. Actualmente dirige cinco tesis doctorales en curso y cuenta con experiencia en supercomputación, preentrenamiento de modelos de lenguaje a gran escala (LLM) y ajuste fino, habiendo participado en varios proyectos de supercomputación en los clústeres MN5 y Leonardo.



Garbiñe Elizegi Narbarte



Intza Gurrutxaga





Xabier Irastorza Urbieta

Euskal Herriko Unibertsitatea



Unai Larrinaga Torrontegui



Aitor Montes Lasarte

Osakidetza

Basaurin jaioa (1972), Euskal Herrian. Medikuntzan lizentziaduna UPV/EHUn, 1999an. Familia medikuntzako espezialitatea burutu zuen 2004an, Galdakao-Usansoloko ospitalean (Euskal Herria). Gaur egun familia medikua da Aramaion, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. OEEko (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) kidea. Euskal prentsan iritzi artikuluak idazten ditu noizean behin. Hizkuntza eta osasungintzarekin zerikusia duten hamar bat argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan, batik bat Osagaiz, BAT soziolinguistika aldizkarian eta International Journal of Integrated Care aldizkarian. Eskalatzailea, zenbait bide berri zabaltzeko eta argitaratu ditu prentsa espezializatuan.



Maite Oronoz Anchordoqui

UPV/EHU

Informatikan lizentziatua, doktoregoa lortu nuen Euskarazko errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko baliabideen garapena: datak, postposizio-lokuzioak eta komunztadurak izeneko tesi-lanarekin (Euskarazko tesien II. Koldo Mitxelena saria teknologian). Une honetan irakasle agregatua Lengoaia eta Sistema informatikoak sailan eta Akademia Antolakuntzako dekanorde Informatika Fakultatean. Ikerkuntzan 1996az geroztik eta irakaskuntzan 2001az geroztik. Ikerkuntzan euskarazko sintaxi-erroreen detekzioan eta hizkuntzen irakaskuntzan aritu ondoren, 2010az geroztik osasun-arloko testu eta hiztegiekin nabil lanean (osasun-txostenen hizkuntza-analisi eta analisi semantiko automatikoan, botiken aurkako erreakzioen detekzioan, etab.). SNOMED-CT ontologiako eduki terminologikoa euskaratzeko lanean nabil Olatz Perez de Viñaspreekin batera. Zientzia-ekarpenei dagokionez 70 argitarapen ditut zeintzuetatik 4 Journal Citation Report (JCR) zerrendakoak diren (3 Q1 motakoak) eta 3 liburu-atalak.



Naiara Perez Miguel

UPV/EHU

Naiara Perezek (Getxo, 1990) hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean eta EHUUn. Gerora, Hizkuntzalaritza Konputazionalaren arloan egin zuen doktoregoa Donostiako Informatika Fakultatean, eta Vicomtech ikerketa zentroan egin zuen lan ikertzaile gisa 2023ra arte. Gaur egun, doktoretza ondoko ikerlaria da EHUko Hizkuntza Teknologietako Zentroan (HiTZ). Bertan, hizkuntza-eredu handien ikerketan egiten du lan, adibidez, Latxaren garapenean.



Lander Solozabal Corcho

OSATEK, S. A.

Portugalete, 1976. Euskal Filologian lizentziatua, EHUUn. Graduondokoak eta masterrak egin ditu soziolinguistikan, hizkuntza-plangintzetan eta osasun-zerbitzuen hizkuntza-kudeaketan. 1994tik euskara-irakasle, trebatzaile, itzultzaile eta zuzentzaile ibilitakoa, baina batez ere hizkuntza-teknikari lanetan, hainbat entitate publiko eta pribatutan. Duela 7 urtetik hona Osatek sozietate publikoko hizkuntza-normalizazioko teknikaria da.



Gorka Torre



Maitane Urruela



Jon Zarate Sesma

UPV/EHU

Jon Zarate Sesma (Lekeitio, 1979) UPV/EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko kide da. Farmazia Fakultateko irakaslea da eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea (2014-2021). Farmazian doktorea da (UPV/EHU, 2007) eta 2016ko osasun-arloko Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren zuzendaria izan da. Azken urteetan gene terapiarako garraiatzaile ez-biralen garapenean ikertzen aritu da. Goi mailako nazioarteko ikerketa aldizkarietan 20 artikulutik gora dauzka argitaratuta eta euskarazko produkzioa zientifikoa ere nazioartekoaren parekoa dauka Ekaia edo Elhuyar bezalako aldizkarietan.



Adrian Zelaia Ulibarri

Ekai Center

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-09-11 ARTE
Orokorra	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	41,00 EUR
Matrikula exentzioa	34,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	41,00 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	12,00 EUR
Elkar	41,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	41,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2026-09-11 ARTE
Orokorra	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	41,00 EUR
Matrikula exentzioa	34,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	41,00 EUR
Elkar	41,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	41,00 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	12,00 EUR

Kokalekua

Aramaio

Aramaio

Araba